



**ALDEZ AURREKO KONTSULTA FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU  
DEKRETU PROIEKTUAZ, HAIN ZUZEN, ERRIOXA JDK KONTSEILU  
ARAUTZAILEAK FINKATUTAKO JARRAIBIDE BERRIEN ARABERA  
ETIKETATZE EDO SUSTAPEN EKINTZAK EGITEN DITUZTEN  
UPELTEGIENTZAKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK FINKATZEN  
DITUENA**

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariatasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimen horrekin zer arazo konpondu nahi den.
- b) Ekimen hori onartzeko beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, Errioxa JDK kontseilu arautzaileak finkatutako jarraibide berrien arabera etiketatze edo sustapen ekintzak egiten dituzten upeltegientzako laguntzak arautzeko arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariatasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 8 egun naturalez, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.



<b>AURREKARIAK</b>	Laguntza lerro berri bat da, lehen araututa ez zegoena.
<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	Sustatzea upeltegiak etiketa ditzaten Arabako Errioxan ekoizten diren ardoak jarraibide berrien arabera, marka pertsonal eta bereizgarria sortzeko Arabako Errioxako eskualdeari lotuta, non jasoko den ekoizpen eremua, zona, udalerrria eta mahastia berezia den, eta jarraibide berri horien sustapen ekintzak ere bai.
<b>HURA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	Beharrezko da Arabako Errioxako eskualdeari eta bertako udalerriei lotutako markaren irudia lortzeko, ardoen aurrealdeko etiketa eta sustapen ekintzen bidez, Errioxa JDK kontseilu arautzaileak finkatutako jarraibide berrien arabera, hala nola zona, udalerrria edo ekoizpen mahastia berezia izatea.
<b>HELBURUAK</b>	Bereiztea Arabako Errioxako eskualdean egiten diren ardoak, marka propio bereizgarria sortzeko, informatzeko eta estatuko eta nazioarteko kontsumitzailearen arreta hartzeko, baina bereziki nazioartekoarena, esportazio sektoreak eskualde horretan garrantzi handia baitu.
<b>ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK</b>	Ez dago beste irtenbide egokirik mota honetako laborantza alternatiboak sustatzeko.